

JARDUEREN TXOSTENA

2014



Euskal Gorra

Federación Vasca de
Asociaciones de Personas Sordas



1. Presidentearen diasala

Jaun / andre agurgarriak:

Aurten berriz ere gatzokizue Euskal Gorraken 2014.urtean zehar gauzatu dituen jardueren txostena aurkeztera. Egun bizi dugun egoera ekonomiko orokorra latza izan arren, 2014.urtean Euskal Gorrak balio estrategiko handikoak eta pertsona gorrentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak sendotzea lortu du, hala nola, Zeinu Hizkuntzako Interprete Zerbitzua, ABIAN Zerbitzua (Lana eta Prestakuntza) eta bestelako programak, Eutsi (elkarte-sarea indartzeko egitasmoa) eta Zeinu Telebista, kasu. Gainera, pasa den ekitaldian hartu genuen erronka nagusienetako bat lortu dugu, autofinantzatze portzentajea handitzea hain zuzen ere. Horri guztzari esker, erabiltzaileei ematen diegun arreta hobetu ahal izan dugu, gure zerbitzuak iraunkorragoak bihurtuz eta eskaintzen ditugun baliabideen kalitatea areagotuz. Ildo horretan, aipatzekoa da interpretazio zerbitzu gutxiago ukatu ditugula eta iaz betetako zerbitzu kopurua gainditu dugula.

Ekitaldien antolakuntzari dagokionez, 2014. urtea zeharo berezia izan da, Gazteen Batzordeak bere jarduna sendotu baitu. Izan ere, otsailean Euskadiko Gazte Gorren I Foroa antolatu zuen eta ekainean Gazte Gorren II Topaketa ospatu zuen Barrian. Bestetik, eta urtero legez, Euskal Gorrak Tolosan irailaren 29an izan zen Pertsona Gorren Nazioarteko Egunean ere parte hartu zuen. Baina zalantzarik gabe, azaroaren 21 eta 22an antolatutako ekitaldiak nabarmendu behar ditugu, Euskal Gorrak estatuko elkarte-sarearen ordezkari nagusiak gurean hartu baitzituen. Asteburu horretan Bizkaiko Foru Liburutegiko egoitzan CNSEko Presidenteen Biltzarra egin zen, Estatuko federazio eta elkarteetako ordezkari nagusiak bertan bildu zirela. Bertoko lurralde agintariek ere euren babesa agertu ziguten, Bizkaiko Ahaldu Nagusi den José Luis Bilbaok eta Pilar Ardanzak, Gizarte Ekintzako Diputatuak, harrera egin zigitela.

Lurralde-federazioen eta Concha Díaz CNSEko presidentearen bisita aprobetxatuz, azaroaren 22an, larunbatean, Bilbon Euskadiko Pertsona Gorren Elkarte-sarearen II Jardunaldia antolatu genuen. Guztira, 90 pertsonek parte hartu zuten eta gainontzeko erkidegoetan elkarte-sareak bizi duen egoeraren gaineko mahai-inguruaz gain, Sergio Murillo ere hizlari izan zen. Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria Aldundiak ezgaitasuna duten pertsonei ematen dien arretaz mintzatu zen. Ondoren, CNSE Fundazioko Jorge Sánchezek hitza hartu eta SVisual zerbitzua azaldu zigun. Jarraian, Alfredo Gómezek, FAASEko presidente eta EUDko kideak, Europako elkartegintzaren gaineko hitzaldia eman zuen.

Jardunaldiak bukatuta, CERMIko Presidente den Luis Cayok, CERMI.es Saria eman zion CNSEko Ohorezko presidente Félix Pinedori, pertsona gorren alde egindako lana eta kolektiboaren mesederako erdietsitako eskubideen lorpene aitortu nahian.

Azkenik, nabarmentzekoa da jardunaldietara bertaraturako elkartegintzako kide gailenen partehartzea, hala nola, Fernando Pascual, Carmen Igal eta Jesús Ayerra. Sari-banaketan Félix Pinedoren ondoan egoteaz gain, jardunaldian parte hartu zuten pertsonei ere bi hitz zuzendu nahi izan zieten.

Azkenik, txosten honetan aurkezten dugun lan guztia Euskal Gorrak osatzen duten gizon eta emakumeen borondate eta ahalegin solidarioerik gabe ezinezkoa litzatekeela adierazi nahiko nuke. Eskerrik asko urte honetan zehar bidelagun izan zaituztegun guztioi eta gizarte berdintsuagoa eta partehartzaileagoa eraikitzearen alde gurekin borrokan aritu zaretenoi.

Agurrik beroena guztioi,

Álvaro Ortega Abajas

Euskal Gorrak Federazioko presidentea

2. Nortzuk gara?

Euskal Gorrak EAEko Gor helduen Elkarte guztien **koordinatzaile eta ordezkari** moduan jokatzeko ardura duen irabazi asmorik gabeko **erakundea** da. EAEko lurralde ezberdinetan ematen diren baldintza desberdinak kontutan harturik, Federazioaren egiturak eta funtzionamendu-ereduak, desoreka-arazo horri erantzun nahi dio, lekuan lekuko elkarteen garapen desorekatua murriztu eta saihestuz, lurralde ezberdinetan **egoera-parekotasuna** sustatzeko asmoz. Azken xedea, pertsona gorrek euskal lurralde osoan **oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea** ziurtatuta izatea da.

GURE XEDEA

Pertsona gorrek gizartean normaltasunez zein modu aktiboan parte hartu dezaten lortzea eta lurralde guztietan elkarte-sareak modu berdintsuan funtziona dezan sustatzea.


GURE IKUSPEGIA

Pertsona gorrek, herri-administrazioek eta gizarteak erreferentziazko erakunde gisa hartu gaitzate, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona gorren ordezkari legez aintzatetsiz.

GURE BALOREAK

- › Gorren Kultura eta Komunitatearen sentipen eta babesa.
- › Gardentasun informatiboa.
- › Talde-lana.
- › Genero-berdintasuna sustatzea.
- › Biltzar Nagusiaren bidezko parte-hartze demokratikoa.
- › Lankidetzan, informazio-trukean eta gure antzekoak diren erakundeekin ekintzak gauzatzean oinarritutako sendotasuna bilatzea.
- › Autonomia: berariazko izaera juridikoa eta jokatzeko erabateko askatasun eta gaitasuna.
- › Pertsona Gor eta Entzuleen arteko eskubide berdintasuna.
- › EAEko Pertsona Gorrek erabateko gizarteratze eta parte-hartze kontzientea izatea.
- › Ingurugiroarekiko errespetua.
- › Hirueletasunaren sustapena: euskera, gaztelania eta zeinu hizkuntza.

3. Organigrama eta Gidaritza Organoak



4. Egoitzak

EGOITZA NAGUSIA

Hurtado de Amézaga k. 27, 6.pisua.
48008 Bilbo

ZEINU.TV ETA IKASTAROAK

Hurtado de Amézaga k. 27, 9. Pisua. Departamentuak 4, 5 eta 6
48008 Bilbo

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Okendo k. 2, Behea
20004 Donostia-San Sebastián

5. Kanpo Harremanak eta Ordezkaritza

2014. urtean zehar Euskal Gorrak erakunde publiko zein pribatuekin elkarlanean aritu da. Horretaz gain, herri administrazioetako hainbat forotan ordezkaritza lanak bete ditu, Pertsona Gorren eskubideak defendatzeko eta euren bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

ERAKUNDEA

HARREMAN MOTA

**Basauriko Gorrak (Basauriko
Pertsona Gorren Elkartea)**

- Bazkide aktiboa.
- Baliabideak partekatu.
- Egitasmoak kudeatu.

**Bizegor (Bilboko Pertsona Gor eta
Zeinu Hizkuntzako Hiztunen Elkartea)**

- Bazkide aktiboa.
- Baliabideak partekatu.
- Egitasmoak kudeatu.

**Arabako Gorrak (Arabako Pertsona
Gorren Elkartea)**

- Bazkide aktiboa.
- Baliabideak partekatu.
- Egitasmoak kudeatu.

**Gainditzen (Tolosaldeako Pertsona
Gorren Elkartea)**

- Bazkide aktiboa.
- Baliabideak partekatu.
- Egitasmoak kudeatu.

CNSE (Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioa)	· Kidetza. · Elkarlana Estatuko Pertsona Gorren elkarte-sarean. · Indar batasuna Estatuan. · Egitasmoen elkar-kudeaketa.
Espainiar Estatuko Gorren hainbat Elkarte eta Federazio	· Informazio elkartrukea eta argibide-eskaerak.
Pertsona Gorren kolektiboarekin lotutako bestelako erakundeak	· Informazio elkartrukea eta argibide-eskaerak.
EDEKA (Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea)	· Kontseiluko kidea.
Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila	· Ikasle gorren Jarraipen Batzordeko kidea.
Eusko Jaurlaritza - Enplegu eta Gizarte Politiketako saila	· Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluko kidea.
Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila	· ZHlen GMPZko praktiketako ikasleen prestakuntza zentroa.
UPV-EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea)	· Ikus-entzunezko Komunikazio eta Harreman Publiko eta Kazetaritza Graduetako praktiketako ikasleen prestakuntza zentroa.
SOS DEIAK	· ZHIZ Hitzarmena (Zeinu Hizkuntzako Interpreten Euskal Zerbitzua): larrialdietarako zerbitzu-eskaera sistema irisgarriaren sorrera.
Bizkaiko Foru Aldundia-Gizarte Ekintza	· III Sektorearekiko Eztabaida Prozesuan parte-hartzea.
Eca Mahaia: Euskadiko enplegu lagundurako Foroa	· Mahaikidea.
BOLUNTA (Bizkaiko Bolondresgo eta Elkarateentzako Agentzia)	· Prestakuntza eta boluntariotza ekintzak eta ekitaldiak antolatzeko elkarlana. · IGEentzako prestakuntza.
EGK (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua / Consejo Vasco de Juventud)	· Lankidetza Euskal Gorrakeko Gazte Gorren Batzordea kide izateko.

6. Zerbitzuak eta Egitasmoak 2014 urtean zehar

Euskal Gorra erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona gor guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkie, bere bi ordezkariak eta elkarte-sarearen bitartez. Erakunde publiko zein pribatuaren finantzaketari eta gure erakundeak berak lortutako diru-sarrerari esker, urtean batez beste, 4.000 eskaera betetzen ditugu gure zerbitzu egonkorretan: Zeinu Hizkuntzako Interpretazio Zerbitzua eta Lan eta Prestakuntzarako Zerbitzua, besteak beste.

Horretaz gain, aldi-baterako bestelako egitasmoen bidez, pertsona gor eta euren senideei edota entzumen ezgaitasunarekin lotutako informazioa, prestakuntza eta aholkularitza behar duten profesional nahiz erakundeei ere arreta ematen diegu.

ZEINU HIZKUNTZA INTERPRETE ETA PERTSONA GOR-ITSUEN GIDARI-INTERPRETE ZERBITZUA

Zerbitzu honen bitartez, Euskal Gorra pertsona gorrei zeinu hizkuntzako interpretea jartzen die, izaera pertsonal duten hainbat eginbide gauzatu ditzaten: mediku eta ospitaleko azterketak, lan eta lantokien bilaketa aktiboa, profesional ezberdinengana zuzendutako informazio-eskaerak, Justizia Epaitegietako eta Aholkularitza Juridikoetako eginbideak, izapideak eta bestelakoak. Horri esker, pertsona gorrek eta gor-itsuek era autonomoan eta inolako komunikazio oztoporik gabe euren eginbideak gauza ditzaten lortzen dugu. Aipatutako zerbitzu guztiak doakoak dira Pertsona Gorrentzat, baita horien finantzaketan laguntzen duten erakunde publiko nahiz pribatuentzat ere.

2014. Urtean zehar, Euskal Gorra erakundeak 2.666 interpretazio zerbitzu kudeatu ditu Erkidegoko hiru lurraldeetan. Beheko grafikoan egindako zerbitzu guztien portzentajeak ageri dira eremuka sailkatuta:

Medikoak
%34,8

Telefonikoak
%20,6

Pertsonalak
%12,6

Herri Administrazioa
%11,4


Bestelakoak
%7,2

Lanekoak
%5,3

Prestakuntza
%5,1

Juridikoak
%3

Erlijosok
%0,2



Hurrengo tauletan lurralde bakoitzean gauzatutako zerbitzu kopuruak zehaztuta agertzen dira.

Ikus daitekeenez, guztira 2.666 interpretazio zerbitzu eman ditugu. Hala ere, zerbitzuen eskaera kopurua, horiek betetzeko dauden profesionalen disponibilitatea baino handiagoa izan da.

Ondorioz, 2014. Urtean zehar 170 zerbitzu ukatu behar izan ditugu.

Dena dela, aurtan 2013an baino 44 zerbitzu gehiago bete ahal izan ditugu eta ukatutako zerbitzu kopurua murriztea ere lortu dugu.

BIZKAIA	HILABETEA	Pertsona GORRA		Pertsona GOR-ITSUA		ERABILTZAIL. GUZTIRA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATUTAKOAK
		Gizona	Emaku.	Gizona	Emakumea				
	URTARRILA	55	82	10	1	148	168	148	20
	OTSAILA	45	81	4	1	131	147	131	16
	MARTXOA	38	72	4	0	114	129	114	15
	APIRILA	35	44	5	0	84	91	84	7
	MAIATZA	46	58	6	1	111	123	111	12
	EKAINA	34	73	7	1	115	122	115	7
	UZTAILA	26	33	5	1	65	66	65	1
	ABUZTUA	34	44	5	0	83	91	83	8
	IRAILA	44	69	3	0	116	132	116	16
	URRIA	53	63	8	1	125	135	125	10
	AZAROA	47	59	8	0	114	123	114	9
	ABENDUA	37	48	3	1	89	95	89	6
	GUZTIRA	494	726	68	7	1.295	1.422	1.295	127

ARABA	HILABETEA	Pertsona GORRA		Pertsona GOR-ITSUA		ERABILTZAIL. GUZTIRA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATUTAKOAK
		Gizona	Emaku.	Gizona	Emakum.				
	URTARRILA	30	32	0	1	63	68	63	5
	OTSAILA	34	41	0	1	76	76	76	0
	MARTXOA	46	35	0	0	81	82	81	1
	APIRILA	30	35	0	0	65	65	65	0
	MAIATZA	22	25	0	0	47	49	47	2
	EKAINA	26	37	0	0	63	67	63	4
	UZTAILA	20	27	0	0	47	47	47	0
	ABUZTUA	0	5	0	0	5	5	5	0
	IRAILA	28	32	0	0	60	65	60	5
	URRIA	20	29	0	0	49	54	49	5
	AZAROA	24	13	0	0	37	37	37	0
	ABENDUA	20	10	0	0	30	32	30	2
	GUZTIRA	300	321	0	2	623	647	623	23

GIPUZKOA

HILABETEA	Pertsona GORRA		Pertsona GOR-ITSUA		ERABILTZAIL- GUZTIRA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATUTAKOAK
	Gizona	Emaku.	Gizona	Emakumea				
URTARRILA	14	12	1	0	27	29	27	2
OTSAILA	30	20	2	0	52	52	52	0
MARTXOA	46	27	0	0	73	74	73	1
APIRILA	34	29	1	0	64	66	64	2
MAIATZA	35	30	0	0	65	69	65	4
EKAINA	21	39	2	0	62	68	62	6
UZTAILA	32	26	0	0	58	58	58	0
ABUZTUA	6	43	0	0	49	49	49	0
IRAILA	59	54	2	0	115	115	114	1
URRIA	32	41	0	0	73	73	73	0
AZAROA	14	45	0	0	59	59	59	0
ABENDUA	29	25	0	1	55	55	52	3
GUZTIRA	352	391	8	1	752	767	748	19

GUZTIRA

HILABETEA	Pertsona GORRA		Pertsona GOR-ITSUA		ERABILTZAIL- GUZTIRA	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATUTAKOAK
	Gizona	Emaku.	Gizona	Emakumea				
URTARRILA	99	126	11	2	238	265	238	27
OTSAILA	109	142	6	2	259	275	259	16
MARTXOA	130	134	4	0	268	285	268	17
APIRILA	99	108	6	0	213	222	213	9
MAIATZA	103	113	6	1	223	241	223	18
EKAINA	81	149	9	1	240	257	240	17
UZTAILA	78	86	5	1	170	171	170	1
ABUZTUA	40	92	5	0	137	145	137	8
IRAILA	131	155	5	0	291	312	290	22
URRIA	105	133	8	1	247	262	247	15
AZAROA	85	117	8	0	210	219	210	9
ABENDUA	86	83	3	2	174	182	171	11
GUZTIRA	1.146	1.438	76	10	2.670	2.836	2.666	170

2014KO URTARRILETIK ABENDURAKO ZERBITZUEN IRAUPENA

LURRALDEA	ZERB. KOPURUA	ZERBITZUEN IRAUPENA	JOAN-ETORRIAREN IRAUPENA	IRAUPENA GUZTIRA	IRAUPEN %
BIZKAIA	1.295	58.805 minutu (980 ordu) Bat-best.: 45 min / zerbitzua	67.385 minutu (1.123 ordu) Bat-best.: 52 min / zerbitzua	126.190 minutu (2.103 ordu) Bat-best.: ordu 1 eta 37 min / zerbitzua	ordu 1 eta 37 min / zerbitzua % 48 zerbitzua % 52 joan-etorria
GIPUZKOA	748	25.812 minutu (430 ordu) Bat-best.: 34 min / zerbitzua	22.767 minutu (379 ordu) Bat-best.: 30 min / zerbitzua	48.579 minutu (809 ordu) Bat-best.: ordu 1 eta 4 min / zerbitzua	ordu 1 eta 4 min / zerbitzua % 53 zerbitzua % 47 joan-etorria
ARABA	623	39.500 minutu (658 ordu) Bat-best.: 1h 3 min / zerbitzua	28.730 minutu (478 ordu) Bat-best.: 46 min / zerbitzua	68.230 minutu (1.137 ordu) Bat-best.: ordu 1 eta 49 min / zerbitzua	ordu 1 eta 49 min / zerbitzua % 57,8 zerbitzua % 42,2 joan-etorria

Zerbitzuaren iraupena kalkulatzeko, interpretazio-zerbitzuak berak irauten duen denboraz gain, interpreteak bertara joan eta handik bulegora itzultzeko ematen duen denbora aintzat hartzen dugu, ala zerbitzura joateko bulegotik irten eta berau amaitzen denera arteko denbora, baldin eta azken hori bukatu eta jarraian beste zerbitzu batera joan behar badu. Zerbitzua gauzatuko den lekura arteko joan-etorria funtsezkoa da, horren arabera izango baita interpreteak egunean zehar bete ditzakeen zerbitzu kopurua. Illo horretan, azpimarratzekoa da joan-etorriei dagokienez, 3 lurraldeetan alde nabariak daudela, batez ere probintzia bakoitzean biztanle gorren banaketa oso ezberdina delako.

Bizkaia eta Gipuzkoan, esaterako, biztanle gorra lurraldean zehar oso sakabanatuta daude; hortaz, Donostia edo Bilbotik kanpora egiten diren zerbitzuatarako joan-etorrietan askoz denbora gehiago ematen da. Arabari dagokionez, aldiz, biztanle gor gehienak Gasteiz inguruan kokatuta daudenez, egun berean zerbitzu gehiago egin daitezke.

Guztira 3 lurraldeetan 2.666 zerbitzu gauzatu ditugu, horien iraupena 4.049 ordukoa izan dela eta zerbitzu bakoitzean, bataz-beste, ordubete eta 31 minutu eman ditugula, joan-etorriaren denbora barne.

ABIAN (LAN ETA PRESTAKUNTZARAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA)

Abian Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Pertsona Gorrentzako Lan Bitartekaritza Zerbitzuak koordinatzeaz arduratzen da. Horretaz gain, hiru lurraldeetarako enplegu-sarea kudeatzen du. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Lanbide eta Hobetuzen bitartez eskaintzen dituen Lanbide-Heziketa eta Hezkuntza Etengabeko ikastaroen hedapenaz eta izen-emateaz arduratzen da. Horietan gainera, irisgarriak izan daitezen beharrezkoak diren baliabideak ere kudeatzen ditu, zeinu hizkuntzako interpreteak jarri ala soinuak anplifikatzeko gailuak eskainiz.


Pertsona gorrei arreta emateaz gain, Abianek funtsezko lana betetzen du enpresa eta erakunde publikoetan: entzumen ezgaitasunaren gainean sentsibilizatzea eta aholkularitza ematea, pertsona gorra lan eremu normalizatuetan laneratu daitezen lortzeko, alegia.

Beheko grafikoan ikusten den bezala, 2014. Urtean zehar Euskal Gorrakek 177 enplegu eta prestakuntza zerbitzu eman dizkie enpresa nahiz norbanakoei. Guztira, 7 pertsona laneratu eta 9 prestakuntza-ekintza gauzatu ditu.

GUZTIRA	ZERB. KOPURUA		ERABILTZAILEAK		ENPRESAK		NORBANAKOAK	
			143		109		0	
	Erabiltzaile kopurua		Gizonak		Emakumeak			
			37		39			
	Zerbitzu mota		Lanekoa		Prestakuntza			
			143		34			
	Prestatutako pertsonak		Okupazionala		Etengabea			
	9		0		0			
	Laneratutako pertsonak		Laneratzea		Lan hobekuntza			
	7		1					

Lan-bitartekaritza
%81

Prestakuntza
%19



LURRALDEKA (BIZKAIA ETA GIPUZKOA)

ZERB. KOPURUA		ERABILTZAILEAK		ENPRESAK		ORIENTAZIOA ETA LAN KUDEAKETA	
BIZK.	GIPUZ.	BIZK.	GIPUZ.	BIZK.	GIPUZ.	BIZKAIA	GIPUZKOA
109	34	52	13	98	11	59	13
Erabiltz.Kopurua		Gizonak		Emakumeak			
63		34		29			
Zerbitzu Mota		Lanekoa		Prestakuntza			
124		92		32			
Prestakuntza		Okupazionala		Etengabea			
9		9		0			
Enplegua		Laneratzea		Lan hobekuntza			
5		4		1			

Abian zerbitzuak honako erakundeei arreta eskaini die:

2014. urtean Abian zerbitzuak 96 zerbitzu eman die hainbat erakunderi: etorkinen elkarteak, erabiltzaileen gizarte-langileak, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen elkarteak, ezgaitasunen bat duten pertsonen bestelako elkarteak, Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila) eta ikastetxeak.

Abian zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak, ONCE Fundazioak eta Euskal Gorrakek finantzatzen dute.

IZENBURUA

Zertan datza?

EUTSI • "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PERTSONA GORREN ELKARTE-SAREA SUSTATZEKO ZERBITZUA"

Aholkularitza, informazio eta prestakuntza zerbitzua, Euskal Gorrakeko kide diren elkarteak indarberritzeko eta autogestioa gauzatu dezaten bultzatzeko.

Erabiltzaileak

Kide diren elkarteetako Zuzendaritza Batzarkideak, bazkide gorrak, bazkide ez diren gorrak eta profesionalak.

Esku-hartze eremua

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Finantzakideak

Euskal Gorrak eta Bizkaiko Foru Aldundia.

IZENBURUA

Zertan datza?

EKITALDIAK

Euskal Gorrakek antolatutako ekitaldiak.

- > Euskadiko Gazte Gorren I Foroa
- > Gazte Gorren II Topaketa
- > Euskadiko Pertsona Gorren Elkarte-sarearen II Foroa
- > CNSEko Presidenteen Biltzarra

Erabiltzaileak

Gorren Komunitateko kideak eta beste hainbat gonbidatu.

Esku-hartze eremua

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Finantzakideak

Euskal Gorrak eta Eroski Fundazioa.

IZENBURUA

Zertan datza?

Erabiltzaileak

Esku-hartze eremua

Finantzakideak

PRESTAKUNTZA

Euskal Gorrakek antolatutako ikastaroak.

Gorren Komunitateko kideak, gizarte zerbitzuetaiko zein hezkuntza arloko profesionalak eta bestelakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Euskal Gorrak, Eusko Jaurlaritza eta bestelakoak.

> Zeinu Hizkuntzako Komunikazio Ikastaroak (Prest Gara).

> Zeinu Hizkuntzako Komunikazio Ikastaroak (Prestakuntza propioa).

IZENBURUA

Zertan datza?

Erabiltzaileak

Esku-hartze eremua

Finantzakideak

ZEINU.TV (TELEBISTA ZEINU HIZKUNTZAN)

Zeinu Internet bidezko telebista da, pertsona gor zein gor-itsuentzat irigarria. Webgunea honako hau da: www.zeinu.tv

Gorren Komunitatea orokorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoa eta gizarte orokorrean (Interneteko edozein erabiltzaile sar daiteke).

Eusko Jaurlaritza, EITB eta Euskal Gorrak.

IZENBURUA

Zertan datza?

Erabiltzaileak

Esku-hartze eremua

Finantzakideak

BESTELAKO JARDUERAK

Euskal Gorrakek gauzatzen dituen bestelako jarduera iraunkorrak.

Gorren Komunitateko erakunde nagusiak.

Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatuak.

Euskal Gorra eta bestelakoak.

- › Eusko Jaurlaritzako Irigarritasun eta Hezkuntza Batzordeetan parte hartu.
- › CNSEren (Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioa) ordezkari organoetan parte hartu.
- › Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua (EJ).
- › Zentzumen Ezgaitasunaren Euskal Kontseilua (EJ).
- › EDEKA (Elbarrituen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea).
- › Signalia, S.L. (Irigarritasun-zerbitzuak): Akzioduna.

7. Giza Baliabideak

2014.urtean zehar, jardunaldi osoan zein zatikako jardunaldian egondako langileak sexuaren arabera banatuta:

Gizonak

5

Emakumeak

16

Guztira

21

8. Euskal Gorrak Webean

2014. urtean zehar, Euskal Gorrak erakundeko jarduerak webean txertatzeko ahalegin nabarmena egin dugu, ahalik eta pertsona kopuru handienarekin komunikatu ahal izateko. Gainera, pertsona gorrentzako eskuragarriak eta irisgarriak diren baliabideak erabili ditugu.

Gaur egun, honako hauek dira Euskal Gorrakek sarean ikusgai dituen webguneak:

www.euskal-gorrak.org

www.zeinu.tv

www.infoeg.org

www.lenguadesignos.info

www.zeinuhizkuntza.info

www.foroasociativopersonassordasdeeeuskadi.eu

www.vivebilbao.info

9. Finantzazioa

Euskal Gorrakek, urteko jarduerak, erakunde publiko zein pribatuen diru-laguntzen bitartez zein ikus-entzunezko, aholkularitza, interpretazio eta prestakuntza zerbitzuen salmentatik lortutako diru-sarrerei esker gauzatu ahal izan ditu. 2014. urtean, gainera, kanpo-finantzazioarekiko menpekotasuna murriztea lortu dugu, autofinantzatze-portzentajea 5 puntutan igo baitugu, %34ra helduz. Jarraian ageri den grafikoan, aipatutako diru-iturri bakoitzaren portzentajea zehaztuta dago.

Finantziazio Publikoa


%56

Autofinantziazioa

%35

Finantziazio Pribatua

%9



ERAKUNDE BAKOITZAK FINANTZATUTAKO PORTZENTAJEA

Eusko Jaurlaritza	62.44 %
Bizkaiko Foru Aldundia	19.46 %
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.70 %
ONCE Fundazioa	9.03 %
Eroski Fundazioa	0.9 %
Osasun, GGZZ eta Berdintasun Min	3.47 %

10. Info EG Boletina

2014an Euskal Gorrak INFO EG idatzizko informazio-boletina abian jarri du, erakundeak berak antolatutako jardueren berri emateko, hala nola: elkarte-sareak antolatutako ekitaldiak, parte hartzen dugun ekitaldiak, bilerak, topaketak, etab. INFO EG boletina hiru hilabetero argitaratzen dugu pdf formatoan eta <http://euskal-gorрак.org/infoEGeu.html> estekan eskuragarri dago.

11. Gardentasuna

2014ko abenduaren 10ean indarrean sartu zen Gardentasun Legea betez, abenduaren 9an Euskal Gorrak gure web orrian bertan atari berria zabaldu genuen, erakundeari buruzko agiri eta informazio publiko guztia ikusgai jarritz: estrategia, aginte-organoak, finantzazioa, informazio ekonomikoa, pertsonak, kanpo-harremanak, estatistika eta sari nahiz aintzatespenak. Informazio guztia gure web orriaren honako atalean eskuragai dago: <http://euskal-gorрак.org/transparenciaEu.html>.

